



<b>IKASTETXEA</b>	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
<b>Arloa/ Irakasgaia</b>	<b>ETIKA</b>	Zikloa / Maila	DBH 4
<b>Irakasleak</b>	<b>Iraide Garitaonandia Lurdes Villar David Díaz</b>	Ikasturtea	2015-2016

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>- Pertsona zer den ezagutzea, norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartuz, banakakoen desberdintasunak eta pribatasuna errespetatzeko eta auto-estima hobetzeko.</p> <p>- Gizarte-komunikaziorako trebetasunak garatzea, gatazkak lantzean elkarrizketa erabiliz, taldeko jardueretan parte-hartze solidarioa eta tolerantzia errazteko.</p> <p>- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala ezagutzea, bertan jasotako eskubide eta erantzukizunen unibertsaltasunaz ohartuz, jokaera indibidualak eta kolektiboak epaitzeko orduan irizpidetzat hartzeko.</p> <p>- Pertsona guztien eskubide eta aukeraberdintasunaz ohartzea, arrazoi ezberdinengatik ( sexua, etnia, sinesmenak, etab. ) dauden bidegabekeriak eta bereizkeriak baztertuz, giza eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren bidezkoa lortzeko.</p> <p>- Pentsamendu kritikoa eskuratzea eta besteen arrazoiak balioestea, horrela norberaren irizpideak garatuz eta aberastuz, ikuspuntu pertsonal bat lortzearen.</p>	<p><b>1. Jokaerak eta aukerak arrazoitzea, zuzenki komunikatzea, errespetuz, eta gatazka-egoeretan elkarrizketara eta bitartekotzara jotzea.</b></p> <p>1.1. Ea bere jokaeraren arrazoiak azaltzen dituen.</p> <p>1.2. Ea sentimenduak eta iritziak errespetuz adierazten dituen.</p> <p>1.3. Ea gatazka-egoeretan elkarrizketaz eta bitartekotzaz baliatzen den.</p> <p><b>2. Pertsonen dimentsio moralaren oinarriko ezaugarriak bereiztea (arauak, balio-hierarkia, ohiturak, etab.) bai eta arazo moral nagusiak ere.</b></p> <p>2.1. Ea kontzeptu moral hauek definitzen dituen: araua, balioa, balio-hierarkia, ohitura, ongia.</p> <p>2.2. Ea egoera zehatzak arazo moral orokorrekin erlazionatzen dituen.</p> <p><b>3. Giza eskubideak giza jokaeraren erreferentzia etiko nagusizat hartzea, herritarren eskubideek izan duten eboluzioa ezagutzea eta horiek erabiltzearen eta betetzearen aldeko jarrerak izatea.</b></p> <p>3.1. Ea jokaerak giza eskubideen arabera epaitzen dituen.</p> <p>3.2. Ea deskribatzen duen eskubide horiek historian zehar nola eboluzionatu duten.</p> <p><b>4. Berdintasunaren eta aniztasunaren arteko erlazioa ezagutzea, eta bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak identifikatzea.</b></p> <p>4.1. Ea berdintasunaren eta aniztasunaren arteko bateragarritasuna arrazoitzen duen.</p> <p>4.2. Ea bereizkeria-egoerak antzematen dituen, eguneroko bizitzako ohiko egoeren artean.</p> <p>4.3. Ea bereizkeriaren arrazoi posibleak adierazten dituen (jatorria, etnia, orientazio afektibo-sexuala, etab.).</p> <p>4.4. Ea berariaz baztertzen dituen egoera horiek.</p> <p><b>5. Emakumezkoen eskubideak defendatzea; emakumezkoak gutxiesten dituzten edo horiekiko bereizkeria eragiten duten adierazpenak baztertzea, eta genero-indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.</b></p> <p>5.1. Ea iritzi garbiak adierazten dituen emakume eta gizonen eskubide-berdintasunaren alde.</p> <p>5.2. Ea gaitzesten dituen emakumezkoek pairatzen dituzten indarkeria-egoerak.</p> <p>5.3. Ea azaltzen duen elementu kulturalen (estereotipoak, rolak, etab.) eta emakumezkoen bereizkeriaren arteko erlazioa.</p>



**6. Informazio-iturri ugari erabiltzea eta horietaz baliatzea bere planteamenduak defendatzeko, eta arazo eta egoera tokikoen zein globalen inguruko debateetan bere kideen iritziei eta aukerei buruz hausnartzea.**

6.1 Ea iturri ugariatik lortzen duen informazioa, Internet sarea barne.

6.2 Ea lortutako informazioa irakasleak emandako irizpideen arabera aztertzen duen.

6.3 Ea informazio hori eta beste iritziz eta argudiatze batzuk erabiltzen dituen bere gogoetetan eta ikuspuntuetan.

6.4 Ea, argudiatzean, gutxieneko zorrotasunez parte hartzen duen debateetan.

## EDUKIEN SEKUENTZIA

( denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

**1.Ebaluazioa (11 saio)** landuko diren gaiak hurrengo hauek dira:

5 saio: *Pertsona izatearen abentura*

6 saio: *Giza eskubideak*

**2. Ebaluazioa (10 saio)** landuko diren gaiak hurrengo hauek dira:

5 saio: *Gure bizitza moralaren sustraiak*

5 saio: *Diskriminazioa eta bazterkeria* (1 partea)

**3. Ebaluazioa (10 saio)** landuko diren gaiak hurrengo hauek dira:

5 saio: *Diskriminazioa eta bazterkeria* (2 partea)

5 saio: *Auzo ala oihan globala?*

## METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

1. Oinarria: testu liburua dugu “Etika eta Gizabide Hezkuntza” Santillana argitaretxea (ISBN: 978-84-8147-956-0) Liburuan agertzen diren gaien jarraipena egingo dugu, eta dauden ariketak egiten saiatuko gara

2. Ikasleen aurretiko ideietatik abiatzea, hau da unitate bakoitzeko edukiak landu baino lehen ikasleen aurretiko ideiak aztertuko dira ;

3. Irakaslearen azalpenak: blokeetako edukien atean dauden loturak azpimarratuko dira, horrela zenbait jardueraren bidez, edukien artean lotura-sare aberats bat dagoela ikusiko dute ikasleek.

4. Ikasleak taldekatzea: banakako lanak eta taldeko lanak txandakatuko dira, ikasleen arteko lankidetzak sustatzeko. Unitatea guztietan, eta batez ere hausnartzeko jardueretan, banaka nahiz taldeka egindako lana talde handian adieartzeko uneak egongo dira.

5. Baliabide teknologikorik egokienak erabiltzea ikasgelan ( adibidez: “Euskal Herria, la deuda oculta”; “La educación prohibida”; “breve historia de los derechos humanos”.....) kasu guztietan ezinbestekoa da ikasleen ausnarketa bultzatzea.

WIKIESPACE: <http://aierupena.wikispaces.com/>

PREZI: <http://prezi.com/il7xlwswu0sl/determinismoa-askatasuna-ukatzin-duten-teoriak/>

<http://prezi.com/-aitnba8slkq/askatasuna-historian-zehar/>

<http://prezi.com/9uyfw4boi7je/auzo-ala-oihan-globala/>



## EBALUAZIO TRESNAK

[ahozko eta idatzizko

probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

## KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

*Idatzizko proba objektiboa:* banakakoak izango dira, haien bidez konprobatuko dugu ea ikasleak unitate didaktiko oinarrizko ezagutzak, arrazoitzeko metodoak, prozedura jakin batzuen aplikazioan... ondo erantzuten duen.

*Eguneroko lana ikasgelan:* aztertzen diren arloak honako hauek dira: interesa, motibazioa, lan ohiturak, arreta, parte-hartzea...

*Ikaslearen koadernoak:* ikaslearen koadernoak kontrolatuz, honako alderdi hauek balora ditzakegu: idazmena, egindako jarduerak, ondorioak eta laburpenak egin dituen edo ez.

*Irakurmena:* ikasgelan irakurtzen diren testuen bidez haien ulermena gradua landuko dugu, eguneroko bizitzan gertatzen diren arazoekin lotzeko ahalmena eta arrazoitzeko gaitasuna.

- idatzizko probak: %60

- Eguneko behaketa, klaseko jarrera eta interesa: %15

- Klasean egindako ariketak koadernoan idatzita: %15

- Irakurmenaren lanketa: %10

## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

[indartzeko eta zabaltzeko neurriak,

antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena,errekuperazio-sistema...]

Ikasle bakoitzak ikasturtean zehar suspenditutako atalak edo zatiak errekuera ditzake froga baten bitartez, edota irakasleak ondo baderitzo lan osagarriak eginez :

☞ Azterketak (eta lan osagarria izanez gero) % 60

☞ Klasean parte hartzea, etxerako lanak ( testu iruzkinak, eskemak, laburpenak, ariketak),koadernoak, lan osagarria... gainontzeko %40.

Ebaluazio bakoitzari dagokiona errekueratuta ez badago, ekaineko deialdian izango du berreskuratzeko aukera. Dena gaituz gero, azken nota guztien batz bestekoa izango da. Oraingoan, errekueratu ezean, ekaineko proban azterketa minimokoa izango da, nahiz eta aurretik ebaluazioren bat gaituzta izan. Kasu horretan azken nota ezin izango da 5 baino altuagoa.

## OHARRAK

**Aurretik aipatu dugun bezala, ekainean egingo den azterketaren edukiak (gutierrezkoak) hurrengo hauek dira:**

### PERTSONA IZATEAREN ABENTURA

- ☞ Pertsonak dituen dimentsioak ( 8-9 orr. )
- ☞ Determinismoa eta askatasuna ( 11- orr. )
- ☞ Askatasuna eta erantzukizuna ( 12. orr. )
- ☞ Bi arazo pertsonal ( 16. orr. )

### GURE BIZITZA MORALAREN SUSTRAIAK

- ☞ Zer da moralduna izatea ( 47.orr. )
- ☞ Gure bizitza moralaren erreferenteak: balioak eta arauak ( 52-53 orr. )



## **GIZA ESKUBIDEAK**

- ☞ Giza eskubideen ezaugarriak ( 76-77 orr. )
- ☞ Giza eskubideen hiru belaunaldiak ( 80-81-82 orr. )

## **DISKRIMINAZIOA ETA BAZTERKERIA**

- ☞ Diskriminazio moduak (baztertua amaitzea, aporofobia eta pobrezia ( 118-119 orr. )
- ☞ berdintasunaren bideak , ekintza eta erakundeak ( 122-123 orr. )